Ezagutzen al duzu zazpi itsasoetako piratarik ospetsuena?

Daniela *Kaiman Beltzeko* kapitaina bihurtu zen,
Belarrimotzi eta Sofronisa sorginari aurre egin zien,
neska piratekin batera borrokatu zuen...

*Bilduma honetan bere abentura guztiak topatuko dituzu.*




LIBURU HAUEK BARNE:













ISBN: 978-84-10406-72-8 www.nubeocho.com
9 788410 406728

nubeOCHO

DANIELA PIRATA BERE ABENTURA GUZTIAK

Susanna Isern & Gómez

nubeOCHO



# DANIELA PIRATA

## BERE ABENTURA GUZTIAK

SUSANNA ISERN
& GÓMEZ



nubeOCHO

*Yuna-ri.*

Susanna Isern

*Nire txikiari, emakume eta gizonezkoen komunak bereizita egotea gorroto duenari.*

Gómez

# DANIELAREN LIBURU GUZTIAK



*Daniela Pirata*

*Daniela eta neska piratak*

*Daniela Pirata eta Sofronisa sorgina*

*Daniela Pirata eta ziklope maltzurra*




DANIELA
PIRATA

ITSASO OSO URRUN BATEAN
*Kaiman Beltza* itsas-gainean zebilen.
INOIZ IZAN DEN
itsasontzi pirata beldurgarriena zen.

ONTZI guztiek saihestu nahi izaten zuten
*Kaiman Beltza* haien ibilbidea antolatzeko garaian,
eta, noizbait, marinelen batek bere KATALOXATIK
begiztatzen bazuen, bira egin eta ihes egiten zuen
aurkako norantzan.





KAIMAN BELTZ-EKO kapitainak BELARRIMOTZ izena zuen. Hura eta bere pirata ankerrak gaiztakeria gupidagabeengatik ziren ezagunak.



# DANIELA
## ETA NESKA PIRATAK





ITSASO OSO URRUN batean *Kaiman Beltza* itsas-gainean zebilen, inoiz izan den itsasontzi pirata beldurgarriena zen.

DANIELA zuen kapitaina.

Egun batez, hegoaldeko itsasoak zeharkatzen ari zirela, **BELE BAT** agertu zen hegaka, mokoan mezu bat zekarrela.




Piratak isil-isiliik geratu ziren, eta **SIRENEN KANTUA** entzun zuten urrunean. Hari jarraituz **ARROKA GRIS** izugarri handi batera iritsi ziren.





# DANIELA PIRATA

## ETA SOFRONISA SORGINA





**SOFRONISA SORGIN MALTZURRA** etxola batean bizi zen, **IRLA ILUNEAN** ezkutatuta. Botere sinestezinak zituen. Bere **EDABE MAJIKOAREKIN** ekaitzak sortu, itsasontziak ondoratu eta lurra dardarka jartzeko gai zen.

**SOFRONISA** sorginak bere **KRISTALEZKO BOLAN** ikusten zuen munduan zehar gertatzen zen guztia. Jendea irribarrez ikusten zuen bakoitzean, sorginkeria beldurgarrienak bidaltzen zizkien haiek gogaitzeko.





# DANIELA PIRATA
## ETA ZIKLOPE MALTZURRA





ZIKLOPE MALTZURRA urruneko irla ezkutu batean bizi zen.
Mendi bat bezain handia eta indartsua zela zioten zurrumurruek, kopetaren erdian BEGI BELDURGARRI bat zuela, aiurri txarra eta GOSE ASEEZINA.

Inguruko irletako biztanleak ziklopearen
BELDUR bizi ziren.



Haurrek ere emakume erraldoi haren inguruko
ISTORIO IKARAGARRIAK kontatzen zituzten.

Egun batez, Eguzkiaren Erreinuko PRINTZEAK
bere aita erregearekin hitz egin zuen. Erabaki
bat hartua zuen.



—Aita, ZIKLOPEAREN bila joango naiz eta sekula gehiago
inori minik ez emateko eskatuko diot.

# SUSANNA ISERN



Susanna Isernek pirata arima du. Pirineoetako mendietan hazi bazen ere, laster itsasoratu zen hainbat bidaiatan eta Santandergo portuan bizitzen amaitu zuen.

Susanna idazlea da, psikologoa, irakaslea eta hiru haurren ama. Espainiako zein beste zenbait herrialdetako haur eta gazte literaturako erreferentziazko idazleetako bat da. Ehun liburu baino gehiago argitaratu ditu gaztelaniaz, miloi eta erdi ale baino gehiago saldu ditu mundu osoan zehar eta, Cervantes Institutuaren arabera, gaztelaniatik gehien itzuli den egileetako bat da (35 hizkuntzatarako itzulpenekin).

NubeOchorekin batera arrakasta handiko lanak argitaratu ditu, besteak beste, *Daniela Pirata*ren bilduma eta beste album ilustratu oso ezagun batzuk: *Luisaren galtzak* edo eta *Vera Astronauta.*

Susannak istorio berri batean pentsatzen duenean, idaztera eseri ohi da, eta, askotan, zera oihukatzen du: “abordatzera!”.

# GÓMEZ



Gómezek ezizena erabili ohi du, pirata askok egin izan ohi duten modura: Boon piratak, Bizarbeltz piratak, Piraten Erreginak... Egiatan, Gómez Ana Gómezen lehen abizena da, haurrentzako liburuen idazle eta ilustratzaile oso ezaguna.

Arte Ederretan lizentziatu zen Salamancako Unibertsitatean, eta laster konturatu zen bazegoela bere hiru pasio handiak (artea, literatura eta haurtzaroa) uztartzen zituen zerbait: album ilustratua. Geroztik, etengabe aritu da lanean estatuko zein nazioarteko izen handiko argitaletxeentzat. Bere lanak aitorpen handia jaso du, berrienetako bat Madrileko Liburudendena. *Cuando me convertí en lombriz* obrak “Urteko Liburua”ren (2024) saria jaso du haur literatura kategorian.

NubeOchorekin batera arrakasta handiko lanak argitaratu ditu, besteak beste, *Daniela Pirata*ren bilduma, *Daniela eta historiako emakume piratak* dibulgazio liburua, *Hatza eta sudurra* bezalako izen handiko beste album ilustratu batzuk, edo eta munstroen bilduma *Banpiro arrizkutsua, Kulero zulatuen mamua, Momia Gosetia* eta *Franky Frankenstein.* Berak ilustratutako zenbait liburu idatzi ere egin ditu, *Tekis* komikia bezala.

**Daniela Pirata. Bere abentura guztiak**

Jatorrizko izenburuak:
*Daniela Pirata,* 2017
*Daniela eta neska piratak,* 2019
*Daniela Pirata eta Sofronisa sorgina,* 2021
*Daniela Pirata eta ziklope maltzurra,* 2024

NubeOchok argitaratutako bilduma, 2025

© testuarena: Susanna Isern, 2017, 2019, 2021, 2024, 2025
© irudiena: Gómez, 2017, 2019, 2021, 2024, 2025
© argitalpenarena: NubeOcho, 2017, 2019, 2021, 2024, 2025
© itzulpenarena: Maialen Mujika Izaguirre, 2019, 2021, 2024, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Lehen argitalpena: Iraila, 2025
ISBN: 978-84-10406-72-8
Gordailu Legala: M-17851-2025

Espainian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen kopiaketa.